

Hotzaren beroa

Asteartean zendu zen Peggy Lee, 'Fever' eta 'Johnny Guitar' kantatu zituen eztarri beroko musikaria

«Entzuleen zarata artean bere aho-tsa entzunarazi ezinik, boza jaitsi zuen. Zenbat eta baxuago kantatu, orduan eta isilikago zeuden entzuleak». Gazte ilehori haren eztarritik ir-teten zen boza zakarra eta gozoa zen aldi berean, beroa, baxua eta sen-tsuala.

Goodman eta Lee

Los Angelesera jo zuen handik puska batera, eta *swing*-aren erregetzat hartua zen Benny Goodmanen orkestran abeslari lana eskuratu zuen 1941ean. *Blues in the Night*, *The Way You Look Tonight* eta *Why Don't You Do Right* kantak ezagun egin zituen Goodmanekin. Ez zuen teknika handirik, baina jantzi eta orrazkera dotoreekin ile bakarra ere nahastu gabe kantatzen zuen gazte hark zintzo itxura guztiak ezabatzen zituen kantatzeari ekitean. Frank Sinatra-ren parean jarri zuten, eta Billie Holiday-ren ispilu zuritzat ere hartu zuten. Alderaketak ez dira balekoak, halere, Nat Hentoff jazz kritikariak Peggy Leeren heriotzaren berri jakitean adierazi duenez. Diana

Krall jazz kantariak ere haren berezitasuna goratu du: «Hark zuen guztia maite dut: haren dotoretasuna, gozotasuna. Nire lanean dudana eragin handiena da».

1943an utzi zuen Leek Goodmanen taldea. *That Old Feeling*, *It's a God Day* eta beste hainbat kanturekin arrakastari eutsi zion. 50eko urteetan lanpetuta ibili zen oso. Capitol etxearekin diskoak plazaratzen jarraitu zuen, eta 1958an grabaturiko *Fever* kantaren arrakastak iragarri zuen jazz musikatik popera ematear zen jautzia.

Kantatzeaz gain, kantuak idazten eta moldatzen zituen Leek. Duke Ellington, Johnny Mercer eta Quincy Jonesentzako kantak idatzi zituen. *Johnny Guitar*, *Tom Thumb*, *About Mrs. Leslie* eta *Lady and the Tramp* filmetako kantak ere berak sortuak dira. Lehen aipatutako *Peg* musikal autobiografikoko kantak ere bereak dira, eta Disney etxearen hainbat filmetako kantak ere bai. 1990ean argitaratutako *The Peggy Lee Songbook* liburuan, berriz, John Chiodini gitarristarekin batera idatzitako lau kanta berri argitaratu zituzten. 650etik gora kanta eta 60tik gora disko utzi ditu.

Duke Ellington, Johnny Mercer eta Quincy Jonesentzako kantak ere idatzi zituen Peggy Leek

Broadwayrains heltzeko, ordea, urteak behar izan zituen Norma Dolores gazteak. 1938an Hollywoodera jo zuen. Alferrik. North Dakotan jarraitu behar izan zuen, Fargoko irrati batean besterik ez baitzuen lortu kantari lana. Han bilakatu zen Peggy Lee, eta izen horrekin jo zuen Kaliforniako Palm Springsera. Bere baimenarekin gerora idatzi zuten biografian jasotzen denez, han garatu zuen kantatzeko modu propioa:



Peggy Lee kantaria.

Film estatubatuar zintzoetan ohikoak diren emakumezko ilehoriaren itxura zeukan. Kantatzean eztarritik sortzen zitzaion bozak, ordea, kraskatu egiten zuen topiko oro.

Amagoia Iban

Duke Ellingtonek *Erregina* deitu ohi zion, eta *Los Angeles Times* egunkari-ko jazz kritikari Leonard Featherrek *Zutik Txalokatzeko Emakumea* ezizena jarri zion. Peggy Lee izenez eza-gutarazi zuen bere burua musika munduan, baina benetako izena Norma Dolores Egstrom zuen. Norvegiar eta suediar jatorriko etxe batean jaio zen, 1920ko maiatzaren 26an, North Dakotako Jamestown herritxoan (AEB), zortzi senideren artean laugarrena. Ama lau urte zituela hil zitzaion, eta aitak etxetik alde egin zien. Izeko batek hazi zituen Egstromdarrak, modu gogorrean zeharo. Garai haiek gogoan idatzi zuen *One Beating a Day* (*Jipoi bat eguneko*) kanta, 1983an Broadwayn estreinatu zuen *Peg* musikal autobiografikoan.

Urteko lehen egunekin iritsi dira egutegi berriak sukaldeko azulejo arteko iltze zaharrera. Urteroko zenbaki berak dakartzate, ordena pittin bat aldatuta. Agenda txikiak ere berdin. Garai honetan nor izateko agendatxoa eraman behar baita motxilan, ahal dela orrialde batzuk zinkinduz itxuratutakoa. Gure hainbeste zita ahaztu ez ditzagun; estresa moda den garaian, denbora ordenatzeko; zeregin piloa txukuntzeko; egunen joan absurdoari, izen-abizenak ezartzeko.

MAIALEN LUJANBIO BERTSOLARIA

Urtarrilak 26, larunbata

Denborari nolabaiteko errepresentazio plastikoa egin premia diogu; denbora den hari jarriak, argi-ilun-ilun-argi, eta beti une hau bera, ito egiten gaituelako.

Nola jasan, ikusten eta ukitzen ez den, izenik, mugarik, araurik, formarik eta definiziorik ez duen zer horren askatasun gehiegizkoa, gozamen aukera bukaezin, une-uneke eta uneorokoaren bertigoa...?! Ez, ez! Dardarka jartzen gaitu pentsatze hutsak!

Egutegiko zenbakitxoetara kondentzen dugu denbora. Gure egunak, gure gauak, elkarrengandik bereizi eta ebaki. Egun bat, azken batean, agenda txiki orrialde zuri erdia da, gainaldean bere titulutxoa duena (beste bere antzekoekin ez nahasteko), eta zenbaki txikiagoetan, egunaren molekular, tripa barrena, orduz orduko ordenamendu zatikatua.

Gaur egunarekin, bihar edo atzo gogoratzen gara. Momentu presenteez oharkabean alde egiten digute hatz artetik. Beti asmatzen dugu zeregin-aitzakiaren bat gozamenaren eta askatasunaren konpromisoari ihes egiteko. Izan ere, agenda bete-bete daukagu...!

Eta nahiago dugu gure plazera dosifikatu, egun zehatzetarako gorde, eta orduan bai, geure buruei gozatzeko baimena eman. Mentalki eta sukaldeko egutegian etorkizun hurbileko egunak gorritz markatzen ditugu. Ilusioa eta aurreikuspenik gogotsuenak ordurako pilatu, eta data seinalatu hori iritsi bitarteko une gehiketa, itsu-itsuan pasatu, sakrifikatu.

Gero, egun seinalatu handiak ez dira hain handi, edo handienak izanik ere, hasi eta amaitu egiten dira. Egutegiko egunak beste izen bat hartzen du, eta agendako orria zahar bihurtzen da. Zer egin orduan, gure ibiliak zentzua har dezan, etorkizuneko beste egun bat —gaurkoa ez, badaezpada— gorritz margotu besterik...?